

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Mendoza kontseilariak adierazi du PAI programa 2015-16 ikasturtean aurreikusita zuten ikastetxeetan ezarriko dela

*Programa hori eskaintzen duten Tuteran inguruko ikastetxeetako hezkuntza-komunitatearekin bildu da, eta ostegunean gauza bera egingo du Iruñerrikoekin*

Martes, 25 de agosto de 2015

Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak gaur goizean adierazi du Ingelesez Ikasteko Programa (PAI) ikasturte honetan ezarriko dela aurreikusita zegoen ikastetxeetan; programa hori ez dela eteten azpaimarratu du, "ebalatu egingo dela baizik, hobetzeko eta optimizatu ahal izateko, beharrezko baliabideekin eta irakasleen prestakuntza egokiarekin".



Tuteran gaur goizean egindako bilkuraren une bat.

Hala azaldu du kontseilariak Tuteran jadanik programa hori eskaintzen duten edo irail honetatik aurrera ezarriko duten udal ordezkari, ikastetxeetako arduradun eta gurasoen elkarteko kideekin egindako bileran.

Zehazki, 2015-16 ikasturtean 17 ikastetxek hasiko dute hizkuntzak ikasteko programa bat. Haietatik, 16 ingelesez (PAI) eta bat frantsesez (PAF). Zentro guztietatik, 8 sare publikokoak dira, eta 9, itunpekoak. Lehenengo artean, ondorengo ikastetxe publikoak daude: Arguedasko Sancho Ramírez, Arroitzeko ikastetxe publikoa, Castejongo Dos de Mayo, Fontellasko Virgen del Rosario, Murchanteko Mardones eta Magaña, Pitillasko ikastetxe publikoa eta Ribaforadako San Bartolome.

Gainera, Iruñeko Bayonne-Vazquez de Mella ikastetxeak PAF programari helduko dio. Bestalde, PAI programa itunpeko ondorengo ikastetxeetan ezarriko da: Altsasuko Jesusen Bihotza, Lizarrako San Ana, Tuterako La Anunciata eta Iruñeko beste bost zentro gehiago: Iruñeko Santísimo Sacramento, Cardenal Larraona, Santa Teresa de Jesús-Teresarrak, Nuestra Señora del Huerto eta Santo Tomás-Dominikanoak

Inguruko ikastetxeekin gaur Tuteran egindako bilerak datorren ostegunean izango du segida; beste bat egingo da orduan, eta bertara jadanik baduten edo programa ikasturte honetan ezarriko duten Iruñerriko ikastetxeak deitu dira

## **Kontseilariaren agerraldia**

Kontseilariarekin batera, Hezkuntzako zuzendari nagusi Estebe Petrizan izan da gaur goizean Tuterako Benjamin institutuan egindako bileran, bai eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko zuzendari nagusi Juan Ramon Elorz ere. Bileran, eskualdeko 15 udalerritako udal ordezkariak, guraso-elkarteetakoak eta 20 ikastetxetako arduradunak izan dira.

Bertaratu izanagatik eskerrak eman ondoren, are gehiago opor-garaia dela kontuan hartuta, kontseilariak Nafarroako Gobernuko programaren akordioan ageri den hezkuntza-arloko plangintza helarazi die; irakaskuntza publikoa lehentasunezko elementu modura bultzatzearen aldeko apustua egiten da bertan, itunpeko irakaskuntza aurrekoaren osagarria izanik.

PAI programari dagokionez, gezurtatu egin du ingelesaren ordezkari euskara jarriko dela; baieztapen horiek "zurrunmurrus faltsu eta oinarririk gabekotzat" jo ditu, eta hezkuntza-komunitateari lasaitasun-mezua igorri dio. "PAI programa ez da etengo. Ebaluatu egingo da, hobetu eta optimizatu ahal izateko, beharrezko baliabideekin eta irakasleak behar bezala prestatuz", aipatu du.

Alde horretatik, gogora ekarri du PAI ez dela hezkuntza-eredu bat, A, G, B eta D diren moduan, hizkuntzen programa bat baizik; hala, irakaskuntza-mota hori premiazkoagoa den aniztasunari arreta handiagoa emateko helburuarekin bateragarria izateko beharra erakutsi du, "hezkuntza-beharra duten haurrak baztertuta gerra ez daitezen".